

Maiatzaren 21eko greba orokorra

Mobilizazioaren balioa

Klase erakunde sindikalek eta milaka langilek krisiaren analisi propio egin eta botere desberdinen kontrolatik at erantzunik ematerik ekidin nahi zutenek huts egin dute.

Nahiz eta zaila izango den ugazaberia, arduradun instituzional, erakunde sindikal batzuk eta hedabideetatik hain jipoitua izan den greba orokorrik aurkitzerik, greba aurretik eta ostean, maiatzaren 21eko greba orokorra arrakastatsua izan da eta “krisia denon artean ordain dezagun” zulo ideologikotik ateratzen hasteko balio izan du eta krisia sortu dutenek ordain dezaten irteera-marran jarri gaitu.

Hau dela-eta, mobilizazio honen aurkako hedabideen eta politikoen eraso bezperakoa baino handiago izan da. Establishment politiko, ekonomiko eta mediatikoentzat oso garrantzitsu zen mobilizazioaren irudi faltsurik eskaintzea, baita ere grebaren mezua gizartea ez txertatzea. Jakin badakite krisia luzerako doala eta 21eko mobilizazioak ekarri duen zirrarak agenda berri bat markatzen duela eta hau d hain zuzen ekidin nahi dutena. Honen adierazpenik garbiena maiatzaren 22ko egunkarietako lehen orrietan aurkitzen dugu; Gara, Berria eta Diario de Noticias de Navarra izan ezik, gainontzeko egunkariak 21eko eguerdiko mobilizazio jendetsuak erabat kendu zituzten.

Milaka grebalari eta manifestarien mobilizaziorako mezua oso argia izan zen: egun eta hemen krisiri aurre egin diezaiokegu, gure bizkarretan utzi nahi duten ugazaberiari eta gobernu-politikei aurre egin diezaikegu. Maiatzaren 21eko mobilizazioa ez dela beste greba orokorren terminoetan kokatzen ere, lau hiriburuetako manifestaldietan garbi eta argi lortutako mobilizazio mailak mobilizazioa behar zela ez ezik posible zela ere adierazten du, eta egin behar zela.

Beharrezko eta onuragarria zen greba

Finantza krisia lehertu zenetik urte eta erdi geroago eta zortzi hilabete krisiaren sakoneko ondorioak nabarmentzen hasi zirenetik, ez zegoen alternatiba handirik. Lau milioi langabetuk (hauen %60a langabezia-saririk gabe), etengabeko EREk, bankari eta ugazaberiari dirua oparitzeko gobernu politikak ezinbesteko egiten zuten mobilizazio zabal bat. Zapateroren Gobernuak errenta nazionalaren %20aren baliokidea jarri du banka edo enpresa pribatua onbideratu eta bermatzeko, eta zailtasunak pairatzen ari diren familientzako, aldiz, %1,5a.

Mobilizazio honek eta mobilizazio honetarako bideak krisi ekonomikoa ez ezik, krisiaren eragin sozialak ere eztabaidaren muinean jarri dituzte gizartearen eta lantegietako hainbat esparrutan. Krisiaren eragileez eta ordaintzaileez hitz egin da; baita ere gobernu-politiken desegokitasunaz, ugazaberia eta bankaren etekin-kontuak bideratutako laguntzak eta ez biztanleriaren gehiengoaren beharrak asetzeko. Mobilizazio honek planetaren geroa arriskuan jartzen duen sistema kapitalistaren irrazionaltasuna azalarazteko balio izan du.

Mobilizazio honek ere, lantegiez haraindi ugazaberiaren aurkako borrokari irteera-tiro eman dio, enpresaz enpresa ugazaberiari aurre egiten dioten langileei isolamendutik ateraz; langabeziara anonimoki joan diren milaka langile horiei adore ekarri die, eta hipoteka-maileguei aurre ezin egin eta bidaltze-prozesuak pairatzen ari direnei ere.

Honez gain, greba hau onuragarri izan da. lehenik eta behin, “gizarte elkarrizketa”rako erasotzarraren erdi-erdian mobilizazio honek egoera bere tokian jartzen duelako; hau da, langileen eskubideen defentsan eta politika publikoen erabateko aldaketaren aldarrikapenean. “Gizarte elkarrizketa” hau ugazaberiarentzat Gizarte Segurantzari egiten dizkion kuoten murrizketa da, EREi oztoporik ez jartze eta lan merkatuaren erreforma; Gobernuarentzat, aldiz, ‘bake soziala’ krisia kudeatu ahal izateko.

Bigarrenik, etengabeko desenkontruz markaturiko harremanak konpontzeko neurri batean bada ere, balio izan duelako. Desenkontru honek ondorio negatiboak izan ditu ugazaberia eta politika antisozialen aurkako borrokan azken hamar urteotan.

Hirugarrenik, langileria aktibatuzko, azken buruan eta deialdia egin zuten haraindi, maiatzaren 16an CCOO deituriko manifestaldia, neurri handi batean grebarako deialdiaz beharturik egin zen. Hau da, zergatik ez esan, greba honek izan duen zeharkako eraginetako bat; eta deialdiaren harira mobilizazio nagusiaren beharra Estatu mailara heltzea ere beste ondorioetako bat izan da.

Eta azkenik, sindikatuen lan militantea suspertzeko balio izan duelako, kanpaina aktibo bat eginaz. Grebak gogobetetasunaz utzi digu greba egin behar zenean egin delako. Eta hau datu esanguratsua da kontutan hartzen badugu

langileria jasaten ari zen apatia urteak.

Eta orain, zer?

Beraz, mobilizazio honen balioa garrantzitsua izan da eta abiapuntu ona ekindako bideari jarraitzeko eta lortutako batasun sindikalaren sendotzean. Oraingo honetan sortu den grebaren aurkako frontea hemendik aurrera mobilizazioa suspertzerakoan aurrean izango dugunaren adierazle garbia dugu.

Egun, krisiak markatzen digun eremuak maiatzaren 21eko mobilizazioari jarraipena ematera behartzen gaitu egunerokoan, enpleguaren suntsiketari aurre eginaz, enpresen itxiera, ERE edo gobernu desberdinen politiken aurka arituz; bai enpresetan bai herritan bai eskualdetan.

Presionatzen jarraitu behar dugu gobernu desberdinek neurriak har ditzaten; proposamen ugari ditugu:

1. Zerga-erreformak egitea gehiago dutenek gehiago ordain dezaten eta ondarea banatu pobretuenen artean.
2. Langabetu bat bera ere langabezia-saririk gabe ez izatea bermatzea; krisia dela bide bizitzeko eta etxebizitzarik izateko diru-sarrerarik gabe diren ororentzat Oinarrizko Errenta, Etxebizitza Prestazio Osagarria eta Gizarte larrialdietarako Laguntzak ere bermatzea.
3. Gastu soziala gehitzea funtsezko eskubideak bermatzeko: heziketa publikoa, doako eta kalitatezko sanitatea edo etxebizitzarako eskubidea.
4. Diru inbertsio publikoa bai, baina zementu gutxiago eta kalitatezko, iraunkorra eta gizartearentzat onuragarri izango den enplegua sortzea.
5. Etxe-bidaltzeekin amaitzea
6. Hemen erabakitako lan legedia prekarietatearekin amaitzeko.
7. Eta bankari dirua eman beharrean, berau nazionaliza dezatela.

Aurrera begira hau dugun erronka izanik, ahalik eta aliantza sindikal eta sozial zehatz eta zabalenak eraikitzen saiatu beharko gara, eta zehatza diogunean esan nahi dugu batasun sindikalaren aldeko gure apustua tinkoa dela; batasun sindikal horrek garbi eta argi izan behar du krisia guk ordaintzea nahi duen ugazaberiarri eta defendatzen ez gaituzten gobernuari aurre egin behar diela.

Borroka bidea denaren konbentzimendutik jarrai dezagun lanean, bide horretan euren eskubideen alde borrokatu nahi duen jendearekin topo egingo dugula eta jakinda lehenago beranduago baino kaleratuko garela maiatzaren 21ean egin genuen bezala, gizarte eredu berria defendatzeko eta aldarrikatzeko.